

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

CEINek doako programa bat abiatu du enpresa-proiektu berriek beren prototipoak egin ahal ditzaten

Ekintzaile eta enpresentzat, hari esker beren proiektua baliozkotu dezakete arriskuak murriztuz

Jueves, 23 de abril de 2015

Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa (CEIN) sozietate publikoak prototipoei buruzko programa aitzindari bat abiatu du. Beren enpresa-proiektuko prototipoa (lehen bertsioa edo modelo) garatu nahi duten ekintzaileentzat da, eta hura ondasun bat, zerbitzu bat edo proiektuaren alderdi zehatz bat izan daiteke. Halaber, negozio-lerro berri bat abiarazi nahi duten enpresentzat da.

Proiektu bat merkaturatu aurretik, beharrezkoa da proba, esperimendazio eta egokitzapeneko faseak gainditzea, eskaintzen den hori hobetzeko, eta bezeroaren beharrei egokitzeko arrakasta izateko berme guztiekin. Prototipoak tresna oso erabilgarriak dira negozio-ideiak, produktuak, zerbitzuak eta prozesuak merkaturatu era arin, ekonomiko eta eraginkorrean baliozkotzeko, bai jarduera berri bat ekiten dutenentzat, bai garapen berriak sustatzen dituzten konpainietarako ere.

Testuinguru horretan, "Proiektuen prototipoak" programaren helburua parte-hartzaileek ekintza-plan bat zehaztu eta egikaritzea da; horretarako, beren prototipo propioa erabiliko dute proiektua hobetu edota baliozkotzeko. Horrenbestez, egokienak iruditzen zaizkien erabakiak hartu ahalko dituzte, eta erabaki horiek zuzentzen diren merkaturako errealitatean oinarrituko dira eta horrek dakartzan arriskuak murriztuko.

Programa bi fasek osatzen dute. Lehena, CEINen egingo den maiatzaren 7ko jardunaldi batekin hasiko da; beren enpresa-proiektuaren prototipoa nola egin jakin nahi duten ekintzaile nahiz enpresetarako izango da. Saio horretan, haren abantailak erakutsiko dira, bai eta zer tresna dauden ere adibide errealekin prototipo bat garatzeko. Gainera, bertaratuek taldean kasu praktikoa landu ahalko dute metodologia hobeto ezagutzeko, eta programako hurrengo fasean duten partaidetza baloratu ahal izateko.

Bigarren fasea hautatutako proiektuetarako da. Parte-hartzaileek beren enpresa-proiektu propioaren ekintza-plan pertsonalizatua landu eta egikaritutako dute beren prototipoarekin egindako lanaren bidez. Saioak maiatzaren 21 eta 26an eta ekainaren 18 eta 24an egingo dira, CEINen; ikuspegi praktikoa izango dute erabat, eta banakako nahiz taldekako lanean oinarrituko da.

Programa honetan, sozietate publikoak egindako enpresa-proiektuen

bizkortze-prozesua indartzen da.

Jarduera horretan, CEINek Juan Gasca adituaren laguntza izango du, hizlari modura. Thinkers Co enpresako sortzaile eta zuzendari nagusia da. Gasca prestatzaile eta aholkularia da negozio-eskola batzuetan eta erakundeetan, eta Google for entrepreneurs ekimeneko Google Experts taldeko kidea da.

"Proiektuen prototipoak" programa doakoa da, eta Nafarroako Gobernuak finantzatzen du.